

Ohar honen bidez, bat egin nahi dugu Euskal Herrian Euskaraz taldearen Harrotze astearekin, apirilaren 22tik 28ra deitutako ekimen nazionalarekin. Egun hauetan, Lezon zein Euskal Herri osoan, euskaldun izateaz harro gaudela aldarrikatu nahi dugu, baita harrotasun hori ekintzetara eraman ere. Horregatik, honako hausnarketak eta eskaerak egitea erabaki dugu.

Euskaldun izateaz harro gaudelako, ez dugu euskaldun izateko baimenik eskatzen ibili behar. Euskaldun izateaz harro gaudelako, ez dugu nahi erdaldunek bileretako hizkuntza baldintzatzea. Euskaldun izateaz harro gaudelako, ez ditugu gure komunikazioak elebitan egingo erdaldun gutxi batzuek uler dezaten. Euskaldun izateaz harro gaudelako, euskaraz hobeto zein okerrago moldatu, horretarako baldintzak dauden guztietan egingo dugu euskaraz. Euskaldun izateaz harro gaudelako, alaitasunez biziko dugu gure kultura, eta gure nortasuna era kolektiboan eraikiko dugu hurrengo belaunaldiei transmititzeko.

Euskaldun izateaz harro gaudelako, ez daukagu ohar hau gaztelerara edo frantsesera itzultzeko inolako intentziorik. Euskaldunon zeregina da erdaldunei kontatzea herri honen euskalduntzean haien konpromisoa ezinbestekoa dela, eta haien ahaleginaren neurrian irabazi ahal izango ditugula euskaldunok euskara hutsean aritzeko esparruak. Gizarte elebidunak ez dira existitzen, beti hizkuntza batek lortzen du ohiko erabileraerako bilakatzea, eta Lezon, euskara izango da hizkuntza hori.

Horretarako, sinatzaileok adierazi nahi dugu barne zein kanpo funtzionamendua euskara hutsean egiten dugula, eta Lezoko gainerako eragileei ere gonbidapena egiten diegu halako konpromisoak har ditzaten, eta haien jarduera euskara hutsean egin dezaten. Era berean, haurren, gazteen, zein helduen euskara ikasteko esfortzua txalotu nahi dugu, eta harrotze astearen baitan ahalegin berezia egitera gonbidatu astebetetz euskara hutsean bizitzeko. Ulertzen ez bagaituzte, eta erdaraz egitera behartu, ohar daitezela halako jarrerak oztopo direla Lezoren euskalduntzerako.

Amaitzen joateko, euskaldunon borrokan katebegi bat gehiago besterik ez garela gogorarazi nahi dugu. Sutondoko kontakizunetara baztertu bagintuzten ere, kalea berreskuratzeko bidean gaude, herri honek sekulako gaitasuna erakutsi baitu euskaldunon zapalkuntzari ilusioz eta irudimenez aurre egiteko. Eta horretan jarraituko dugu. Harro gaudelako euskaldun izateaz. Harro gaudelako Lezo euskaldun izango dela aldarrikatzeaz. Lezon ere euskaldun, eta harro!



TXIRBILLA



Baso Bizia Jaizkibel

